



XX.

*Udaberriko*

**MUSIKALDIA**

MAIATZAK

10ETIK

26RA



ARRASATEKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Kultura eta turismo departamentua



ETORKIZUNA  
ORAIN

Maiatza  
mayo

📅 10

🕒 19:30

📍 Juan Arzamendi Musika Etxeko auditoriuma



# SUGAAR ENSEMBLE



EGITARAUA /// PROGRAMA 

## SUGAAR ENSEMBLE

### Haize boskotea/quinteto de vientos

**Nagore Larrion** Zeharkako txirula/flauta travesera  
**Eneko Iriarte** Klarinetea/clarinete  
**Iñaki Iraola** Fagota/fagot  
**Eider Gaztañaga** Tronpa/trompa  
**Mikel Albistur** Oboe/oboe

### FERENC FARKAS (1905-2000)

#### Danzas Húngaras,

I Entrada  
II Lento  
III Danza  
IV Coro  
V Saltarello

### TOMÁS GARBIZU (1901-1989)

#### Tres impresiones vascas (estreno)

I Aranzazu  
II Ardi galdua  
III Belatsarena

### JACQUES IBERT (1890-1962)

Tres piezas breves

### TOMÁS ARAGÜÉS (1935-2022)

Quinteto Vasco

### I Arin-Arin

II Biotz-biotzetik  
III Ezpata-dantza  
IV Aldapeko

## **Sugaar Ensemble**

Sugaar Ensemblea lekuko musikoen laguntasunetik sortzen da. Bost kideak musika-  
rekiko maitasunak batzen ditu, batez ere ganbera musikak. Nahiz eta musika arloan  
bakoitzak zeregin desberdinak betetzen dituen, talde bezala lan egiten beraien den-  
bora partekatzen dute. Sugaar Ensemblea errepertorio ezberdina modu entretenigarri  
eta atsegin batean ezagutarazteko gogoia duen taldea da, elkarrekin musika egiteko  
grinak bultzatuta. Taldearen motorra giro desberdinetan jarduteko gogoia da, estilo eta  
aukera desberdinak erakutsiaz. Taldearen izenarekin identifikatuta sentitzen dira bost  
musikariak, izan ere, Euskal mitologian Sugaarek sugarra, garra, sua esan nahi du, eta  
zaintzen ez bada honek itzaltzen bukatzen du. Isladatuta ikusten da esanahi honetan  
musika ikasketaren prozesua eta bost soinu bateratzearen zailtasuna.

## **Sugaar Ensemble**

En el glosario de la mitología vasca, Sugaar significa llama, de ahí que los componen-  
tes eligieran esta palabra en representación de la agrupación, al sentirse identificados  
con ella, ya que, si no se conserva, la llama termina extinguiéndose. Con esto se quiere  
reflejar el trabajo que conlleva el estudio musical y la dificultad de hacer de cinco soni-  
dos uno sólo. Sugaar Ensemble surge de la amistad entre músicos de la zona, teniendo  
en común el amor por la música, en especial por la música de cámara. A pesar de sus  
diferentes dedicaciones en el ámbito musical, dedican parte de su tiempo a trabajar  
como agrupación. La ilusión por hacer música juntos hace que Sugaar Ensemble sea  
un grupo con muchas ganas de dar a conocer el repertorio (tanto de quinteto como  
composiciones de diversa índole) de manera amena y lúdica por igual. Además, el  
factor motor del grupo es poder actuar en distintos ambientes, mostrando así su ver-  
satilidad, siempre tras haber realizado un buen trabajo lleno de dedicación y energía.

Maiatza  
mayo

📅 12

🕒 19:30

📍 San Frantzisko eliza



# ALL'ANTÍCA



EGITARUA /// PROGRAMA 

## INTERPRETATZAILEAK / INTÉRPRETES

<b>Laiene Alcalá</b>	Sopranoa / Soprano
<b>Diego Parra</b>	Biolin barrokoa / Violín barroco
<b>David Sáez</b>	Moko txirula / Flautas de pico
<b>Silvia Cantatore</b>	Zango biola / Viola da gamba
<b>Teresa Merino</b>	Tiorba / Tiorba
<b>Elvira Pujol</b>	Klabezina / Clave

### Lehenengo zatia, Ingalaterra / Primera Parte, Inglaterra

Scott Old Song Lord Aboyne's Welcome F. Barsanti  
If love's a Sweet Passion - Fairy Queen Z 629 H. Purcell  
Chaconne - Fairy Queen Z 629 H. Purcell  
The Knotting Song Z 371 H. Purcell

### Bigarren zatia, Frantzia / Segunda Parte, Francia

Prelude (Suite II) M. Marais  
Vos mépris chaque jour M. Lambert  
Menuet - Sarabande (Suite II) M. Marais  
Sans frayeur M. A. Charpentier

### Hirugarren zatia, Italia / Tercera Parte, Italia

Capriccio per sonare il violino con tre corde a modo di lira B. Marini  
Folle è bene che si crede T. Merula  
Folias echa para mi Señora Doña Tarolilla de Carallenos A. Falconieri  
Se l'aura spira G. Frescobaldi

## **All' Antica**

### GRAND TOUR

Diziplina anitzeko proposamen eszenikoa da eta barroko ingeleseko, frantseseko eta italiarreko antzinako musika estiloak uztartzen ditu; hala, iragana eta oraina elkartzea du helburu.

Askotariko estilo nazionalak azalpen laburrekin tartekatzen dira; horrela, batetik, tesuingurua ematen zaio musikari; bestetik, ikusleari laguntzen dio Purcellen, Versailles jauregiaren eta Italiako lehen barrokoaren garaian kokatzen, non musikak funtsezko papera zuen.

### KONTZERTUAREN HELBURUA

Kontzertu honen bidez, XVII. mende amaieran errotutako ohitura eman nahi dugu eza-gutzera: baliabide nahiko zituzten gazte europarrek, adin nagusitasuna lortzean (21 urte inguru), Europatik bidaiatzen zuten Italia helmuga nagusiz hartuta. Antzinako instrumentuen erreplikak erabiliko dira, interpretazio zaindua eta historizista eskaintzeko asmoz. Bost jotzaile eta soprano bat izango dira interpretatzaileak.

## **All' Antica**

### GRAND TOUR

Es una propuesta escénica multidisciplinar que mezcla la música antigua del barroco inglés, francés e italiano, buscando un reencuentro entre el pasado y el presente.

Intercalando breves comentarios explicativos entre los diferentes estilos nacionales, se contextualiza la música y se ayuda al espectador a situarse en la época de Purcell, del Palacio de Versalles y el primer barroco italiano, donde la música tenía un papel fundamental.

### PROPÓSITO DEL CONCIERTO

Con este concierto queremos dar a conocer una costumbre muy arraigada a finales del siglo XVII que consistía en realizar un viaje a través de Europa, con Italia como destino clave, emprendido por jóvenes europeos de suficientes medios, cuando habían alcanzado la mayoría de edad (alrededor de 21 años). Los instrumentos utilizados serán réplicas de instrumentos antiguos, tratando de ofrecer una interpretación cuidada de tipo historicista. El número de intérpretes es de cinco instrumentistas y una soprano.

Maiatza  
mayo



17



19:30



San Frantzisko eliza



# KEA ABESBATZA



## EGITARUA /// PROGRAMA

### **JOSQUIN (ca. 1450 - 1521)**

Mille regretz

### **PASCUAL ALDAVE (1924-2013)**

Díptico de la tristeza  
de Tríptico Popular Vasco  
Neskazarrak joaten dira,

### **OLA GJEILO (n. 1978)**

Northern lights

### **URMAS SISASK (n. 1960)**

Oremus

### **PASCAL DUSAPIN (n. 1955)**

Umbrae mortis

### **LEONARD BERNSTEIN (1918-1990)**

French choruses from The Lark:  
Spring song  
Court song  
Soldier's song

### **XABIER SARASOLA (n. 1960)**

de Ke Orbelen Meza:  
Neguan orbela (Texto: Mikel Sarriegi)

### **JAVIER BELLO-PORTU (1920-2004)**

Une vieille chanson d'amour  
Chori erresñoula

### **PABLO SOROZABAL (1897-1988)**

Arrosa lilia  
Nahi zuya yin

KEA Ahots Taldea 1997an sortu zen, XX. eta XXI. mendeetako gutxien erabiltzen den musika korala interpretatzeko tresna ezin hobea sortzeko, euskal egileekiko sentsibiltate berezia duena. 2023an Ligeti Lux aeternaren obra ikonikoa interpretatu zuen, 16 ahots mistorentzat a capella, BOSen denboraldi sinfonikoaren barruan. Duela gutxi "KE ORBELAK" CD berria aurkeztu du, Azurza eta Sarasolaren lanekin, Josu Okiñena eta Asier Polorekin batera, Orpheus Classical zigiluan argitaratua. 2022an, INMORTAL BACH interpretatu zuen, Iñaki Salvadorrekin batera, piano jazzaren eta Bachen ahots-lanaren arteko fusio original bat, Jesu, meine Freude motetearen inguruan.

KEAk kontzertu-jarduera bizia egin du eta obra ugari enkargatu eta estreinatu ditu, horietako asko taldearentzat berarentzat idatziak.

Hala, urte hauetan interpretatutako egileen artean aipatzekoak dira: Jonathan Dove, Luis de Pablo, Gabriel Erkoreka, Juan José Eslava, Zuriñe Gerenabarrena, Félix Ibarrondo, Jesús M<sup>a</sup> Sagarna, Joseba Torre, Enrique Vázquez, M<sup>a</sup> Eugenia Luc, Javier Busto, Eva Ugalde, Javier Bello-Portu, Joan Magrané, David Azurza, Xabier Sarasola, besteak beste. 2020an, Luis de Pabloren Zurezko Olerkia eskaini zuen, konpositorearen 90. urteurrena zela eta, FBBVAren Musika Garaikideko Zikloan, Bilbon.

2015ean, Madrilgo Reina Sofiako Auditorioan aritu zen, Agustí Charlesen Requiem de l'oubli lanaren estreinaldiarekin. Cuencako Musika Erlijiosoaren Astean, Bilboko musika garaikidearen BBVA zikloan eta Palau de la Música Catalanako ganbera aretoan ere parte hartu zuen.

Behin baino gehiagotan jo du Auditorio Nazionalak Reina Sofia Museoko A-400 aretoan antolatzen duen Musika Garaikideko Zikloan. Besteak beste, Iñaki Alberdi, Josu Okiñena, Fahmi Alqai, Leonardo García Alarcón eta Naoko Kikuchi bakarlariek lagundu dute KEA.

KEA IFCMk Puerto Madrynen (Argentina) 2011ko abuztuan antolatutako Musika Koralaren Munduko 9. Sinposiorako hautatua izan zen.

Gure herriko musika garaikideko jaialdi eta ziklo askotan aritu da, baita Frantzian, Belgikan, Italian, Argentinan eta Uruguain ere.

Bacri, Daniel-Lesur, Jennefelt, Castán, S.D. Sandström-en obrekin hainbat CD aurkeztu ditu. Javier Bello-Portu euskal konpositorearen obra osoa bi CDtan grabatu du.

**Maiatza**  
mayo



17



19:30



San Frantzisko eliza



## ENRIQUE AZURZA

KEA ahots-talde profesionalaren zuzendari sortzailea eta Billboko Koral Elkartearen zuzendari artistikoa 2016ko apiriletik. Koru zuzendaritza ikasi zuen Euskal Herrian eta Stockholmen, Anders Ebyrekin, Gipuzkoako Foru Aldundiaren beka batekin. Eric Ericson eta Carl Høgset-ekin espezializazio ikastaroak egin zituen. 1991n Zuzendari Onenaren Saria jaso zuen Varnako Nazioarteko Lehiaketan (Bulgaria). Bi aldiz gonbidatu du IFCMk Musika Koralarren Munduko Sinposioa: Sydney 1996 eta Puerto Madryn (Argentina) 2011.

## GRUPO VOCAL KEA AHOTS TALDEA

**Enrique Azurza, director**

KEA Ahots Taldea fue creado en 1997 con el fin de configurar un instrumento ideal para la interpretación de la música coral menos frecuentada de los siglos XX y XXI, con una especial sensibilidad hacia los autores vascos.

En 2023 interpretó la icónica obra de Ligeti Lux aeterna, para 16 voces mixtas a capella, dentro de la temporada sinfónica de la BOS.

Ha presentado recientemente su nuevo CD "KE ORBELAK" con obras de Azurza y Sarasola, junto a Josu Okiñena y Asier Polo, editado en el sello Orpheus Classical.

En 2022 interpretó INMORTAL BACH, junto a Iñaki Salvador, una original fusión de piano jazz con la obra vocal de Bach, en torno a su motete Jesu, meine Freude.

KEA ha desarrollado una intensa actividad de conciertos y ha encargado y estrenado un buen número de obras, muchas de ellas escritas para la propia agrupación.

Así, entre los autores interpretados a lo largo de estos años cabe citar: Jonathan Dove, Luis de Pablo, Gabriel Erkoreka, Juan José Eslava, Zuriñe Gerenabarrena, Félix Ibarrrondo, Jesús M<sup>a</sup> Sagarna, Joseba Torre, Enrique Vázquez, M<sup>a</sup> Eugenia Luc, Javier Busto, Eva Ugalde, Javier Bello-Portu, Joan Magrané, David Azurza, Xabier Sarasola, entre otros.

En 2015 actuó en el Auditorio del Reina Sofía de Madrid, con el estreno de Requiem de l'oubli, de Agustí Charles, obra dedicada al grupo vocal KEA. También participó en la Semana de Música Religiosa de Cuenca, en el ciclo BBVA de música contemporánea de Bilbao, y en la sala de cámara del Palau de la Música Catalana.

Ha actuado en repetidas ocasiones en el Ciclo de Música Contemporánea que el Auditorio Nacional organiza en la sala A-400 del Museo Reina Sofía. KEA ha sido acom-





pañado de solistas de la talla de Iñaki Alberdi, Josu Okiñena, Fahmi Alqai, Leonardo García Alarcón, Naoko Kikuchi, entre otros.

KEA fue seleccionado para el 9º Simposio Mundial de Música Coral, organizado por la IFCM en Puerto Madryn, Argentina en agosto de 2011.

Ha actuado en numerosos festivales y ciclos de música contemporánea de nuestro país, así como en Francia, Bélgica, Italia, Argentina y Uruguay.

Ha presentado diversos CDs con obras de Bacrí, Daniel-Lesur, Jennefelt, Castán, S.D. Sandström. Ha grabado en dos CDs la obra completa del compositor vasco Javier Bello-Portu.

## ENRIQUE AZURZA

Director fundador del grupo vocal profesional KEA y director artístico de la Sociedad Coral de Bilbao desde abril de 2016. Estudió dirección de coro en el País Vasco y en Estocolmo, con Anders Eby, becado por la Diputación de Gipuzkoa. Realizó cursos de especialización con Eric Ericson y Carl Høgset. En 1991 recibe el Premio al Mejor Director en el Certamen Internacional de Varna (Bulgaria). Invitado en dos ocasiones por la IFCM al Simposio Mundial de Música Coral: Sydney 1996 y Puerto Madryn (Argentina) 2011.

Maiatza  
mayo

📅 18

🕒 19:30

📍 San Frantzisko eliza



# ARRASATE MUSIKALEKO ORKESTRA ETA GOIKOBALU ABESBATZA



EGITARAUA /// PROGRAMA

**Sinfonía n.º 8 en si menor, D. 759**

**Franz Schubert**

**I. Allegro moderato**

**II. Andante con moto**

**Introduction and March finale**

**Kenneth Leighton**

**Réquiem en re menor, Op. 48**

**Gabriel Fauré,**

I. Introit et Kyrie

V. Agnus Dei

VI. Libera Me

VII. In Paradisum

**Udalamendi**

**Juan Arzamendi**

Arrasate Musical Orkestra sinfonikoa. Zuzendaria: Iker Olazabal  
Goikobalu Abesbatza. Zuzendaria: Iñaki Maidagan

### **ARRASATE MUSIKALEKO ORKESTRA SINFONIKOA**

Arrasate Musikaleko Orkestra Sinfonikoa 1975ean sortu zuen Juan Arzamendi Enparantzak, "Arrasate Musikal" orduko akademiako zuzendari eta fundatzaileak. Orkestra hura 12 eta 20 urte arteko hogeita hamar bat gazteek osatzen zuten. Lehen kontzertua 1976ko ekainaren 22an eskaini zuten Amaia Antzokian. Arrasate Musikaleko oraingo Orkestra Sinfonikoa eskolako ikasleek, irakasleek eta ikasle ohiek osatzen dute. Zuzendaria Iker Olazabal da. Musikariok urte asko daramate Zartzuelako orkestran parte hartzen eta kasu honetan Arrasate Musikalek jarraipena eman nahi izan dio proiektuari, eta sendotu egin Orkestra Sinfonikoa, Oraingo Orkestrak, lehen kontzertua 2009ko Udaberriko Musikaldian egin zuen.

### **GOIKOBALU ABESBATZA**

Goikobalu Abesbatza-Coro de Mondragón betidanik Arrasate-Mondragonen egon den musika koralarekiko (Parrokiko Abesbatza, Zartzuelen emanaldiak, Danok Abesbatza) ilusio eta zaletasunaren fruitua da. Bere lehenengo pausoak 1989an Luis Ignacio Ruiz de Alegria-ren zuzendaritzapean eman zituen eta hasieratik musika koralararen arlo guztiak jorratzea izan du helburu (polifonia, herri musika, sinfoniko koral, klasikoa...).

Helburu horri jarraituz 1996-ko urtarrilean oraingo zuzendaria den Iñaki Maidagan-ek bere gain hartu zuen Abesbatzaren zuzendaritza. 2000. urtean Bergarako Orfeoiarekin batera eta Oñatiko Ganbara Abesbatzaren laguntzarekin aitzindari izan den Debagoiena bailarako Lausardi Koru Sinfonikoa sortu zuen, proiektu berriak eta batez ere handiak burutzeko, bailarako abesbatza denei partaidetza eskainiz.

### **ORQUESTA SINFONICA DE ARRASATE MUSIKAL**

La Orquesta Sinfónica de Arrasate Musikal fue creada en el año 1975 por Juan Arzamendi Emparanza, director y fundador de la academia "Arrasate Musikal". Dicha Orquesta estaba integrada por una treintena de jóvenes de edades comprendidas entre los 12 y los 20 años. El primer concierto de aquella Orquesta Sinfónica tuvo lugar el 22 de junio de 1976 en el Teatro Amaia de Arrasate. La actual Orquesta Sinfónica de Arrasate Musikal está compuesta por el alumnado, profesorado y exalumnos de la escuela. Su director es Iker Olazabal. Estos músicos llevan muchos años participando en la Orquesta de la Zarzuela y en este caso Arrasate Musikal ha querido dar un seguimiento al proyecto, consolidando la Orquesta. La Orquesta actual realizó su primer concierto en el Udaberriko Musikaldia del año 2009.

### **CORO DE MONDRAGÓN**

Goikobalu Abesbatza-Coro de Mondragón es el fruto de la afición e ilusión que desde siempre ha habido (coro Parroquial, coro Danok, Representaciones de Zarzuela...) en la villa de Arrasate-Mondragón. Desde sus primeros pasos en 1989, bajo la dirección de Luis Ignacio Ruiz de Alegria, trabajar todo tipo de música ha sido una de sus máximas (polifonía, folclore, sinfónico coral...). Siguiendo en esa misma línea asume la dirección del coro en 1996 Iñaki Maidagan Lazkano, su actual director.

En el 2000 ha fundado junto con el Orfeón Bergarés y la colaboración de Oñatiko Ganbara Abesbatza, Lausardi Koru Sinfonikoa, pionero en su iniciativa de dar cabida a todos los coros de la comarca y con intención de abordar nuevos tipos de programas, sobre todo de nuestros compositores Vascos.

Maiatza  
mayo



22



19:30



Juan Arzamendi Musika Etxeko auditoriuma



# AITOR GARITANO AGUIRREOLEA

## Tenorra



### EGITARAUA /// PROGRAMA

**Music for a While**  
(OEDIPUS, Z.583)

**PURCELL, H.**

**Caché dans cet asile**  
(**Berceuse**)  
(Jocelyn – JOCELYN)

**GODARD, B.**

**Enjoy the sweet**  
**Elysian grove**  
(Alceste – ALCESTE)

**HÄNDEL, G. F.**

**Cuando sus ojos lánguidos** **ARRIETA, E.**  
(Herman – EL DOMINÓ AZUL)

**Let not fame**  
**the tidings spread**  
(Hyllus - HERCULES)

**HÄNDEL, G. F.**

**Misero! O sogno...**  
**Aura che intorno spiri** **MOZART, W. A.**  
(REC. E ARIA DA CONCERTO  
KV 431(425b))


**De 6 Lieder, Op.57** **MENDELSSOHN, F.**  
Hirtenlied (Uhland, L.)  
Venetianisches Gondellied (Moore, T.)  
Wanderlied (Eichendorff, J. Von)

**Ecco ridente in cielo** **ROSSINI, G.**  
(Conte –IL BARBIERE DI SIVIGLIA)

**2 SONGS, Op. 3:**  
Seule! (Gautier, T.)  
Sérénade toscane  
(Anónimo, trans. Bussine, R.)

**FAURÉ, G.**

**Gure basetxe** **SOROZABAL, P.**  
(Eguileor, I.)



## **AITOR GARITANO AGUIRREOLEA – Tenorra**

Bergaran jaio zen (2000), eta Bergarako Musika Eskolan egin zituen lehen musika ikasketak. Batxilergo musikala egin ondoren, Gasteizko Jesus Guridi Kontserbatorioan jarraitu zituen kantu ikasketak Mercedes Astuy eta Haizea Muñoz irakasleekin. Gaur egun, Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegian (Musikene) kantu-ikasketak gauzatzen ari da Maite Arruabarrena mezzosopranoarekin eta Itziar Barredo eta Maciej Pikulski errepertoristekin.

Besteak beste, Ana M<sup>a</sup> Sánchez, Miren Urbietta, Ainhoa Garmendia, Carlos Mena, M<sup>a</sup> Cristina Kiehr, Markus Fohr, Markus Hadulla, Simon Lepper, Lola Casariego, Justina Gringyté eta Ida Lanuzziren kantu eskolak jaso ditu.

Bere ibilbidean, hainbat kontzertu eta opera burutu ditu tenore bakarlari gisa, hala nola: D. Buxtehude-ren Membra Jesu nostri, C. Orff-en Carmina Burana, J. Haydn-en Stabat Mater-a, W.A. Mozart-en Requiem-a eta Koronazio Meza, J. S. Bach-en Johannes Passion, G. Rossini-ren Petite Messe solennelle, W. A. Mozart-en Bastian und Bastianne (Bastian), N. Rimsky-Kórsakov-en Mozart und Salieri (Mozart), H. Purcell-en Dido and Aeneas (Sailor), R. Leoncavallo-ren I Pagliacci (Beppe), G. Puccini-ren Turandot (Pong) eta I. Stravinsky-ren Oedipus Rex (Pastor).

Laster, bakarlari gisa G. F. Händel-en Messiah, W. A. Mozart-en Die Zauberflöte (Tamino) eta J. C. Perez-en Saturraran (Tifoi) bezalako obretan debutatuko du.

Bere bakarlari ibilbidea Euskal Herriko hainbat abesbatza talderen zuzendaritzarekin eta ahots teknikako irakasle bezala uztartzen du.

## **AMAIA ZIPITRIA ZUGASTI- Pianoa**

Amaia Zipitria Zugasti. Andoainen jaioa (Gipuzkoa). Ikasketak Andoainen egin zituen Luis Fraca eta Myriam Ulanga-rekin, Donostian Gonzalo Trevijano-rekin, Baionan Mme. Doué-rekin, eta Rotterdameko Goi Mailako Kontserbatorioan, Barbara Grajewska-rekin. Pianoaren goi mailako titulua lortu zuen kalifikazio altuenekin, eta ganberako irakaslearen titulua, goi mailako ohorezko amaierako sariarekin.

JONDE Espainiako Gazte Orkestra Nazionaleko kidea izanik, eta hainbat orkestratako kolaboratzailea, esaterako RTVE, ONE, Euskadiko Sinfonikoa, Bilboko Sinfonikoa, Cadakesko orkestra eta abarrek, maisu handiek zuzendu dute, hala nola Carlo María Giulini, Philippe Entremont, Gianandrea Noseda, Victor Pablo Pérez, Juanjo Mena, Ernest Izquierdo eta abarrek.

Piano jotzaile laguntzailea Zakhar Bron-en biolin katedran, Madrilgo Reina Sofía eskolan, Eduardo Martínez maisuaren oboe eskoletan, Alcalá de Henaresko Unibertsitateko Musika Gelan, eta beste hainbeste ikastaro magistraletan, honako hauek emanak: Vadim Repin-ek, Maksim Vengérov-ek, Silvia Marcovici-k, Isabel Vila-k, Nicolas Chumachenko-k eta abarrek, eta Donostiako Orfeoiko piano jotzailea 11 urtean. Gaur egun, biolontxelo eta klarinete errepertorioko irakaslea da Asier Polo-ren eta Jose Luis Estellés-en eskoletan, Musikene Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegian.

**Maiatza**  
mayo



**22**



**19:30**



**Juan Arzamendi Musika Etxeko auditoriuma**



Kontzertu lanaren ondorioz, auditoriumak egiten ditu Madrilgo eta Bartzelonako Nazionalen, Zaragozan, Sevillan, Malagan, Oviedon, Bilboko Euskaldunan, Kursaaln eta abarretan, eta Espainiatik kanpo Kroazian, Italian, Frantzian, Ingalaterran eta Suitzan.

Bere grabazioen artean, nabarmentzen dira Jesus Villa-Rojo-ren 2. sonata, Asier Polo (NAXOS) biolontzelo jotzailearekin batera; Babar-ko ganbera taldearen bertsioa; Poulenc, Cadaquesko Orkestra (TRITO) osatzen duten kideekin; Debussy-ren sonata, Irene Echeveste biolinistarekin, eta Tartini-ren sonata, Erica Ramallo (SONY) biolinistarekin; eta "Soinuaren bidaia" eta "Soinuaren bidaia II" diskoak, Alberto Urretxorekin batera, Bilboko Orkestra Sinfonikoko tronboi jotzaile solista.

Tritó argitaletxearentzat Xavier Montsalvatge-ren harpa, gitarra eta klabezinerako kontzertuen pianorako murrizketak egiten ditu.

### **AITOR GARITANO AGUIRREOLEA – Tenor**

Nacido en Bergara (2000), realizó sus primeros estudios musicales en la Escuela de Música de Bergara (Gipuzkoa). Tras finalizar el bachillerato musical, continuó sus estudios de canto en el Conservatorio Jesús Guridi de Vitoria-Gasteiz con las profesoras Haizea Muñoz y Mercedes Astuy. Actualmente está cursando estudios de canto como tenor en el Centro Superior de Música del País Vasco (Musikene) con la mezzosoprano Maite Arruabarrena y con los repertoristas Itziar Barredo y Maciej Pikulski.

Ha recibido clases de canto de Ana M<sup>a</sup> Sánchez, Miren Urbieta, Ainhoa Garmendia, Carlos Mena, M<sup>a</sup> Cristina Kiehr, Markus Fohr, Markus Hadulla, Simon Lepper, Lola Casariego, Justina Gringytė e Ida Lanuzzi entre otros.

En su recorrido ha ofrecido varios conciertos y óperas como tenor solista: Membra Jesu nostri de D. Buxtehude, Carmina Burana de C. Orff, Stabat Mater de J. Haydn, Requiem y Misa de la Coronación de W. A. Mozart, Johannes Passion de J. S. Bach, Petite Messe solennelle de G. Rossini, Bastian und Bastianne (Bastián) de W. A. Mozart, Mozart und Salieri (Mozart) de N. Rimsky-Kórsakov, Dido and Aeneas (Sailor) de H. Purcell, I Pagliacci (Beppe) de R. Leoncavallo, Turandot (Pong) de G. Puccini y Oedipus Rex (Pastor) de I. Stravinsky entre otros. Proximamente debutará como solista en obras como Messiah de G. F. Händel, el papel del Tamino en la ópera Die Zauberflöte de W. A. Mozart y el papel de Tífoi en la ópera Surraran de J.C. Perez y K. Uribe. Combina su carrera de cantante solista con la dirección de varias agrupaciones corales del País Vasco y como profesor de técnica vocal.

### **AMAIA ZIPITRIA ZUGASTI- Piano**

Amaia Zipitria Zugasti. Nace en Andoain (Gipuzkoa). Cursa sus estudios en Andoain con Luis Fraca y Myriam Ulanga, en San Sebastián con Gonzalo Trevijano, en Baiona con Mme. Doué y en el Conservatorio Superior de Rotterdam con Barbara Grajewska.



Obtiene el título superior de piano con las más altas calificaciones y el título de profesor de Cámara con premio de Honor Fin de Grado Superior.

Como integrante de la J.O.N.D.E (Joven Orquesta Nacional de España) y colaboradora de orquestas como R.T.V.E, O.N.E, Sinfónica de Euskadi, Sinfónica de Bilbao, Orquesta de Cadaqués etc. ha sido dirigida por grandes maestros, como Carlo María Giulini, Philippe Entremont, Gianandrea Noseda, Víctor Pablo Pérez, Juanjo Mena, Ernest Izquierdo, etc.

Pianista acompañante en la cátedra de violín de Zakhar Bron en la escuela Reina Sofía de Madrid, de las clases de oboe del maestro Eduardo Martínez en el Aula de Música de la Universidad de Alcalá de Henares y otros tantos cursos magistrales impartidos por: Vadim Repin, Maksim Vengérov, Silvia Marcovici, Isabel Vila, Nicolas Chumachenco, etc y pianista del Orfeón Donostiarra durante 11 años. Actualmente es profesora de Repertorio de violoncello y clarinete en las clases de Asier Polo y José Luis Estellés, en el Conservatorio Superior del País Vasco Musikene.

Su labor concertística le lleva a auditorios como el Nacional de Madrid y Barcelona, Zaragoza, Sevilla, Málaga, Oviedo, Euskalduna de Bilbao, Kursaal, etc., y fuera de España en Croacia, Italia, Francia, Inglaterra y Suiza.

Entre sus grabaciones destacan la Sonata nº2 de Jesús Villa-Rojo junto con el violoncellista Asier Polo (NAXOS), la versión de grupo de cámara de Babar, Poulenc con componentes de la Orquesta de Cadaqués (TRITO), la Sonata de Debussy con la violinista Irene Echeveste y la Sonata de Tartini con la violinista Erica Ramallo (SONY), y los discos "Soinuaren bidaia" y "Soinuaren bidaia II" junto con el trombonista solista de la Orquesta Sinfónica de Bilbao Alberto Urretxo.

Ha realizado para la editorial Tritó, las reducciones para piano de los conciertos para arpa, guitarra y clavecín de Xavier Montsalvatge.

Maiatza  
mayo

📅 25

🕒 19:30

📍 Juan Arzamendi Musika Etxeko auditoriuma



# IÑAR SASTRE





## Iñar Sastre – Piano Solo

Denetarikoinuak abiapuntu hartuta eta sorkuntza propioa ezinbesteko tresna izanda, ibilbide musikal oparo bat proposatzen digu Iñar Sastrek pianotik bakarkako lan honetan. Erritmoen etengabeko jolasak, melodia ezagunen fantasiatzko garapenek, testura musikal kontrastatuek eta metrika bihurriren batek, doinu soiletatik eratorritako konposizio eta inprobisazio pertsonal eta original batzuk osatzera eramango dute pianista.

XVIII. mendeko Bachen do minorreko preludiotik, Schumannen Arabeskora. Ezagun ditugun betiko euskal doinu eta estandarretatik azken hamarkadan rock eta pop musikan ohiko izan diren doinuetara, mugez gaindiko sorkuntza irekiak proposatuko dira, non hasi eta nola bukatuko den aurrez zehaztu ezinak.

Iñar Sastrek Parisko Goi Mailako Kontserbatorio Nazionalean ikasketak amaitu ondoren, herri musika, jazz eta musika klasikoa landu ohi ditu. New Yorkeko Carnegie Hallen eta Berlingo Filarmonikan aritua da. Hainbat bakarkako diska kaleratu ditu eta pianista sortzaile gisa, arte eszenikoetan lan egiten du maiz, baita ikus-entzunezkoetarako konposatu ere. Jaso dituen sarien artean aipatzekoak dira Laboa Katedra edo eta Musika Bulegoa. Egun, Musikeneko irakaslea da.

A partir de todo tipo de melodías, y puesto que la creación propia es una herramienta indispensable, Iñar Sastre nos propone una carrera musical espléndida desde el piano en esta obra individual. Los juegos continuos de ritmos, los desarrollos de fantasías de melodías conocidas, texturas musicales contrastadas y alguna métrica enrevesada llevarán al pianista a completar una serie de composiciones e improvisaciones personales y originales derivadas de simples melodías.

Del preludio de do menor de Bach del siglo XVIII al Arabesco de Schumann. Desde las tradicionales melodías y estándares vascos conocidas hasta las melodías que han sido habituales en la música rock y pop durante la última década, se propondrán creaciones abiertas transfronterizas, imposible concretar previamente donde comenzarán y cómo terminarán.

Iñar Sastre tras finalizar sus estudios en el Conservatorio Nacional Superior de París habitualmente trabaja la música popular, el jazz y la música clásica. Ha participado en el Carnegie Hall de New York y en la Filarmónica de Berlin. Ha publicado varios discos en solitario y como pianista creador trabaja a menudo en las artes escénicas, y también compone para audiovisuales. Entre los premios que ha recibido cabe mencionar el premio de Cátedra Laboa y el premio Musika Bulegoa. En la actualidad es profesor de Musikene.

Maiatza  
mayo

📅 26

🕒 19:30

📍 Juan Arzamendi Musika Etxeko auditoriuma



# EÑAUT ZUBIZARRETA



DOODEM: Ojiwbe jatorrizko hizkuntzan, naturaz gaindiko objektu edo animalia, kultura batzuen mitologiatan tribu edo pertsonaren ikurtzat hartzen dena.

25 urte beteko ditut aurten, biolontxeloaz ezagutu eta berau ikasten hasi nintzenetik. Orduz geroztik, fededuna ez naizen arren, totem edo ta ikur sakratu bat bihurtu zait. Bizitza honi eusteko darabilkidan artefaktu bat.

Ikertzeari beranduxeago ekin nion, orain dela 5 bat urte. Nire totema altzoan, tripetatik ir-tetzen zitzaizkidan hitzei musikaz lagundu nien lehenengoz (Esku Bi Hamar Hatz, 2019); bigarrenaz biolontxeloaz musika modernoetan txertatu nuen lan teoriko-praktiko baten bitartez (POLIEDRO Vol.I, 2021). Hirugarren honetan munduko txoko ezberdinetako musika tradizioetan jarri dut fokua: DOODEM.

DOODEM bidai bat da, Paul Gilroy soziologoak aipatzen duen Atlantiko Beltzean zehar: 7 kanta, 7 herri. Herriko musiketan azpimarra egiten du beraz lan honek, 'herrikoitasunean' erori gabe baina, beti begirada berritzaile batekin. Tokian tokiko berezitasun musikalak ideia estetiko gisa hartu, nahastu eta kanta ezberdinetan aplikatu ditut. Mbira edo ta Kora bezalako instrumentuak entzuten ari zarela pentsa daiteke batzuetan, edo ta gitarra flamenko bat beste batzuetan, biolontxeloaren ordeaz. Ahotsak eta saxo barito-noaren tinbreak tribuetako kantetara garamatzate; eta perkusioak txeloaren aurka talka egiterakoan sortutako polirritmiek gorputza mugiaraztera garamatza.

Naturarekiko harremana, askatasun grina, edo ta minari eginiko orroak non nahi entzun daitezke lan guztian zehar, antzinako begirada berritu bat. Elkartasuna edo ta edertasunaren ideiarene bestelako eraikuntza baten beharra ere hor dago, egungo aldarriak baina aspalditik datozenak.

Bidaia are eta gehiago potentziatzeko, bi lagun haundiren laguntza izango dut, Iñigo Xalbador (1992, Barañain) eta Amaiur Luluagarena (1992, Anoeta). Lehenak, saxo baritonoarekin melodiak jantziko dizkio kutsu afrikarra duten kantei. Bigarrenak berriz, dantzaren bitartez gorpuztuko du musikak soinu esan nahi duena.

DOODEM: En la lengua Ojibwe, objeto o animal sobrenatural, considerado como símbolo de la tribu o persona en las mitologías de algunas culturas.


Este año cumpliré 25 años desde que conocí el violoncello y empecé a estudiarlo. Desde entonces, aunque no soy creyente, se ha convertido en un tótem o en un símbolo sagrado para mí. Un artefacto que me sirve de anclaje a esta vida.

Empecé a investigar un poco más tarde, hace unos 5 años. Junto mi tótem, la primera vez vestí con música las palabras que salían de mis tripas (Esku Bi Hamar Hatz, 2019); la segunda vez inserté el violonchelo en las músicas modernas a través de un trabajo teórico-práctico (POLIEDRO Vol. I, 2021). En este tercer trabajo he puesto el foco en las músicas tradicionales de diferentes rincones del mundo: Doodem.

DOODEM es un viaje por el Atlántico Negro del que habla el sociólogo Paul Gilroy: 7 canciones, 7 pueblos. Este trabajo destaca por tanto en las músicas populares, sin caer en la “popularidad”, y siempre con una mirada innovadora. He tomado las peculiaridades musicales locales como ideas estéticas, las he mezclado y las he aplicado en diferentes canciones. A veces se puede pensar que estás escuchando instrumentos como la Mbira o la Kora, o una guitarra flamenca en otras ocasiones, en lugar del violoncello. La voz y el timbre del saxo baritono nos llevan a las canciones tribales; y las polirritmias producidas al chocar la percusión contra el cello nos llevan a mover el cuerpo.

La relación con la naturaleza, el afán de libertad, o los gritos de lamento pueden escucharse en todas partes a lo largo de todo el trabajo, una mirada antigua y renovada. También está la solidaridad o la necesidad de una construcción diferente de la idea de la belleza, cuyos clamores actuales vienen de tiempo atrás.

Para recrear el viaje, contaré con la ayuda de dos grandes amigos, Iñigo Xalbador (1992, Barañain) y Amaiur Luluaga (1992, Anoeta). Iñigo vestirá con melodías de saxo baritono canciones de corte africano. Amaiur, a través de la danza, encarnará lo que la música quiere decir.



**MAIATZAK 10** | 19:30 | JUAN ARZAMENDI MUSIKA ETXeko AUDITORIUMA  
**SUGAAR ENSEMBLE**



**MAIATZAK 12** | 19:30 | SAN FRANTZISKO ELIZA  
**ALL'ANTICA**



**MAIATZAK 17** | 19:30 | SAN FRANTZISKO ELIZA  
**KEA ABESBATZA**




**MAIATZAK 18** | 19:30 | SAN FRANTZISKO ELIZA  
**ARRASATE MUSIKALEKO ORKESTRA  
ETA GOIKOBALU ABESBATZA**



**MAIATZAK 22** | 19:30 | JUAN ARZAMENDI MUSIKA ETXeko AUDITORIUMA  
**AITOR GARITANO**



**MAIATZAK 25** | 19:30 | JUAN ARZAMENDI MUSIKA ETXeko AUDITORIUMA  
**IÑAR SASTRE**



**MAIATZAK 26** | 19:30 | JUAN ARZAMENDI MUSIKA ETXeko AUDITORIUMA  
**EÑAUT ZUBIZARRETA**



ARRASATEKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Kultura eta turismo departamentua



ETORKIZUNA  
ORAIN